

Iritzi Generoak

2019-2020



Aristoteles (384 k.a. – 322 k.a)



1. GAIA: SARRERA

- **1.1. JATORRIA**

Aristoteles: Auditorio edo entzuleria zabal baten aurrean hitzaldi baten bitartez ideiak eta iritziak plazaratzeko arte edo teknikari **ERRETORIKA** deritzaio.

- Aristotelesen ustez, filosofiaren zientzia osagarria da erretorika.

Gizartean iritzi bat sortzea du xede,
baina beti ere,
egiaren bilatzea oinarri harturik.



1. GAIA: SARRERA

Aristoteles *versus* sofistak:

-Sofistek aintzat hartzen ez duten **dimentsio etikoa** du erretorikak.

-**Egiaren defentsa** da.
Ez egiantz edo sinesgarritasunarena.

-Iritzia **gizalegez** eta **iruzur edo engainurik gabe** eskaini behar da.





Zizeron

(106 k.a. – 43 k.a)



1. GAIA: SARRERA

- **Zizeron:** Latindar Erretorika. Zizeron: *De inventione*
 - **Inventio:** errealitatetik puri-purian dauden auzi eta ideia nagusiak bereganatu. Eta, halaber, argudioak ere aurkitu.
 - **Dispositio:** auzi nagusia edo gaia egituratu. Testuaren barne kohesioa lortu.
 - **Elocutio:** planifikatutako ideien idazkera. Islatu nahi den ikuspegia ahalik eta argien adierazi. Formulazio estilistikoa
 - **Pronunciatio:** hitzaldia eman auditorio batean.



1. GAIA: SARRERA

Zizeronek erretorikaren esparruan greziarrek egindako ekarpenak aintzat hartu eta sistematizatu zituen; izaera praktikodun teknika bilakatu.





**Chaïm Perelman &
Lucie Olbrechst-
Tyteca
(1958)**



1. GAIA: SARRERA

- **Chaïm Perelman & Lucie Olbrechts-Tyteca.**
Traité de l'Argumentation. La nouvelle rhétorique
(1958).
- **Erretorika berreskuratu eta moldatzeaz gain, argudiatzearen oinarriak ezarri zituzten.**
Hala, erretorikak irakurlea kontuan hartuko du
(*keep readers in mind*)
eta argudiatzea izango du oinarri.



1. GAIA: SARRERA

- **Auditorioa.** Hizlariak bere argudiatzearen bitartez eragin nahi duen pertsona taldea. Horretarako, ezinbestekoak dira:
 - **Hizkuntza komun bat.** Hizlaria auditorioarekin komunika dadin.
 - **Entzuleriaren atxikimendua.**
Auditorioaren onespena hizlaria entzuteko.



1. GAIA: SARRERA

- Auditorioaren sailkapena:

1. Auditorio unibertsala. Arrazoiaren jabe diren gizaki guztiek osatua. Konbentzitzea da xede.

2. Auditorio partikularra.

Limurtzea da xede. Ekintza edo emaitza bat lortzea.

Adb.: hiritarraren bozka.



1. GAIA: SARRERA

- **Konbentzitzea / limurtzea:**

- Konbentzitzea.** Pisuzko argudioak, datuak, estatistika...

- (Auditorio unibertsalari zuzendua)

- Limurtzea.** Era guztietako argudioak.

- Benetakoak ez direnak ere.

- (Auditorio partikularrari zuzendua)



Argudiatzea



Robert H. Jackson fiskala Nuremberg-eko epaiketan.



1. GAIA: SARRERA

- 1.2. ARGUADIATZEA

Argudiatzea

Argudiatzearen helburu nagusia **iritzi bat defendatzea eta hartzailea hartaz konbentzitzea da arrazoibideak eta frogak erabilita.**



1. GAIA: SARRERA

- Bi alde: **Pragmatikoa / Egiturazkoa**

Pragmatikoa. Argudio-testua, oinarrian, enuntziatu bat baino ez da. Bertan, igorleak hartzaileari argudio edo arrazoi bat eskaintzen dio ondorioa onar dezan.

Igorleak, mezu horren bidez, **hartzailea konbentzitu** nahi du. Harengan **eragina izan** nahi du, **haren pentsamoldea aldatu edo modu jakin batean joka dezan bultzatu.**



1. GAIA: SARRERA

Egiturazkoa. Argudiozko testu batean oinarrizko bi osagai azalduko dira:

1. Tesia:

Gogoetagai zein argudiatzearen xede ere den oinarrizko ideia.

2. Argudioaren gorputza:

Igorleak hartzailea konbentzitzeko darabiltzan arrazoi guztiak: argudioak.



1. GAIA: SARRERA

Argudiatzearen bideak:

Argudiatzeak dituen oinarrizko bideak frogapena eta limurtzea dira.

-Frogapenean, gertakariak oinarri dituzten arrazoidun argudioak erabiltzen dira.

-Limurtzean, argudio afektiboak erabiltzen dira.

